



**IKASTARO OSAGARRIA**  
**XX. MENDEKO ARKITEKTURA-ARTXIBOAK**  
**ARKITEKTURAKO IKASKETA DIGITALEN ZENTROA (3. ED)**

**INFORMAZIO OROKORRA**

---

**IKASTURTEA:** 2022/2023

**ARLOA:** Ikasketa Teknikoak

**KREDITUAK:** 12 ECTS kreditu (\*)

**MATRIKULA TASA:** 66,00 € (Asegurua: 4 €, galdetu)

**ARDURADUN AKADEMIKOAK:** Olatz Ocerin Ibáñez eta Mariano Jiménez Ruiz de Ael

**AURKEZPENA**

---

Ikastaro honen helburua da azken 50 urteotan munduko herrialde garatuenetan hainbat erakundek eta partikularrek egiten duten lana aztertzea eta ezagutaraztea, ondare dokumental arkitektoniko eta urbanoari dagokionez, ikasketa eta ikerketa zentro garrantzitsuak sortuz. Ikastaroa modu praktikoan garatuko da, Euskal Herriko Arkitektoen Elakrgo Ofizialeko ondare fisiko eta dokumental arkitektonikoa bilatu, antolatu, babestu, aztertu eta zabaltzeko lanean murgilduz. Horretarako, EHUko Arkitektura Eskolako "Arkitektura Artxiboa" k duen askotariko dokumentazioa erabiliko da. Era berean, emakumezko arkitektoek egindako artxiboak, obrak eta proiektuak aztertzeari eta ikusarazteari esker, erreferente profesional-zientifikoak sortu ahal izango dira, ikastaroko irakaskuntzan genero-ikuspegia ezarriz.

**ZURE BILA GABILTZA**

---

Artxiboen, digitalizazioaren eta audiomediaren esparruko profesionalak, arkitekturaren ikertzaileak eta ondare arkitektonikoaren espezialistak izango dira EHUko Arkitektura Goi Eskolak dituen dokumentu-funtsak aztertzeko eta tratatzeko gonbidatutako irakasleak.

**IRTEERA PROFESIONALAK**

---

Ikastaroak Arkitektura Artxiboen eremuan espezializatzeko aukera ematen du, euskal lurraldearen ikerketa arkitektonikoan "berritzaitzat" jo daitekeen eremua. Euskal arkitektura garaikideko profesional ezagunenetako batzuen proiekturik pertsonalenetara hurbilduz, gure lurraldeko obra garrantzitsu eta ezagunenetako batzuk asmatu eta sortzeko prozesua aurkitu ahal izango da.



Horrek aukera emango dio ikasleari gertakari arkitektonikora modu berezian hurbiltzeko, eta ikerketa-proiektuak edo doktorego-tesia egin ahal izango ditu.

## **BALDINTZAK**

---

Titulaziorik ez da beharrezkoa. Arkitekturako gradu edo masterreko ikasleek lehentasuna izango dute.

## **IRAKASKUNTZA**

---

**HASIERA ETA AMAIERA DATA:** 2023/05/15-tik 2023/07/30-ra

**EMATEKO TOKIA:** Arkitektura Goi Eskola Teknikoa

**HIZKUNTZA:** Gazteleraz/Euskeraz

## **INFORMAZIOA/IZEN-EMATEA**

---

**SAIL EDO ORGANO ARDURADUNA:** Arkitektura Goi Eskola Teknikoa

**TELEFONOA:** 627 93 07 04 (Olatz Ocerin)

**POSTA ELEKTRONIKOA:** [olatz.ocerini@ehu.eus](mailto:olatz.ocerini@ehu.eus)

(\*) ECTS kreditu batek 25 orduko balioa du.